

Arrazoibidea 2019ko apirileko kanpainari buruz “Aldaera zeure arabera”

Caritas Bizkaiaren 2019ko apirileko kanpainak, “Aldaera zeure arabera” leloarekin batera, kokaturik jarraitzen du 2018-19 ikasturte pastoraleko kanpainan, hots, “Zure ahalegina, denon atsegina” leloan; izen ere, horrek sakontzen uzten digu konturatzeko zer adierazten duen kristau konpromisoak izaera gisa, zelan egon munduan eta nola erantzun errealitate horri.

Proposatzen dugun mezua, aurtengo kanpainen haria bera, da **aldaera**: aldaera pertsonalak, keinuak eta erabakiak, dena aldatuz Erreinua eraikitzen dutenak, hain zuzen.

Bizi dugun errealitate bidegabe eta ez zuzenak deitzen gaitu konpromisoa hartzera kristau elkarte garenez gero, pobreziaren eta desberdintasunaren kausak eraldatzeko, eta aukerako proposamen zehatzak eskaintzeko, haien alde eginez. Gaur egungo eredu ekonomiko nagusia errealitate itzela da: desberdintasun handiak eragin eta eskubideak oso sarri urratzen ditu. Ekonomia horrek lagunak eta ingurumena esplotatu, eta milaka pertsona baztertzen ditu bizitza duinetik.

Frantzisko Aita Santuak diosku “gaur ezetz esan behar diogula bazterketa eta zuzentasunik ezeko ekonomia bati» (Evangeli Gaudium Aholku Apostolikoa, 53), eta animatzen gaitu lan egitera guztion etxea zaintzeko xedez, Laudato Si Entziklikan. Bizkaiko Eliza hainbat urtean dabil lanean eredu ekonomiko alternatibo eta solidario baten alde, pertsonak erdigunean jarri eta kraziaioa zaintzeaz arduratzeko. Aukera hori da Ekonomia Solidarioa, eta zera du helburu: oinarriak era iraunkorrean ematea gizakiaren garapen pertsonal eta sozialerako, ingurunearen barruan.

Lagunen zerbitzuan dagoen ekonomiaren alde egiterakoan, ezinbestekoa da kontsumo kritiko eta arduratsua, eta praktika horretan harremanetan jartzen gara, geure iritzia agertuz. Kanpaina honek **hausnartzera** gonbidatzen gaitu kontsumo gizarteak sortzen duen gaitzeskerari buruz, eta konturatzera eguneroko gauza den erosketaren egintza bihurtu daitekeela errealitatea aldatzeko tresna.

Kontsumo gizarteak nahi eta premiak sortzen ditu; ez dira batere oinarritzkoak, berehalako ahetasunaren bila doaz eta, betetze hori lortzen ez dutenez, pertsona ipintzen dute berriro etengabeko kontsumo jarreran. Prezioa erabakigarri da aukeratzeko gure erosketan, baina ez dugu begiratzen zer-nolako prezioa ordaindu behar izan duten beste lagun askok edo ingurumenak produktuok egiteko, guk erosten ditugunak, hain zuzen.

Bihurtze pertsonaleko prozesu batera gonbidatzen dugu. Modu arduratsuan kontsumitzea lotua dago transformazioari: ingurua zein nor bere burua aldatzeari; egintza arduratsu horrek lagunak eta ingurumena zaintzen ditu, eta hausnarketa eragin dezake pertsonetan, gogoan erabiltzeko bizitzan gauzak ezinbestekoak diren ala ez.

Lehen pausoak hausnarketa sortu eta galdera batzuk egin behar ditu: non gauzatzen diren erosten ditugun ondasun eta zerbitzuak, zer lan-, gizarte- eta partaidetza-egoeratan bizi diren egiten dituzten pertsonak, zelan eragiten dion inguruari produkzioak, ea dagoen berdintasunik gizon eta emakumeen artean gauzatzeko prozesuan, non, zer eta zenbat erosten dugun, ... Azken galdera horrek lagundu diezaguke zer den beharrezkoa aditzen (“Kontuz! Gorde diru gosetik, **ondasunek ez baitiote inori bizia segurtatzen**, ugari izanda ere” Lk 12, 15).

Gure erabakia kontsumitzeko erari buruz honako jarrera hauetan oinarritu behar da:

- Gai izatea kontsumo arduratsuko jokaera lotzeko aukera batzuekin, hala nola lanbide inklusiboa sortzearekin (duina/egokia/eskuragarria lagun guztientzat), ingurumena zaintzearekin (berrerabili eta birziklatzea) eta beharrezkoa kontsumitzearekin (murriztea) batera.
- Gauza izatea ondasun eta zerbitzuak erosten ditugunean ikusteko atzean dauden pertsonen aurpegiak eta eragina ingurumenean, eta horren harira, denbora eta kontzientzia ematea kontsumoko erabaki bat hartzeko asmoz.
- Neurritasuna eta apaltasuna txertatzea gure bizimoduan. Horrexek lagunduko digu bihurtzen eta planetarekin eta bizidunekin adiskidetzen. “Kristau espiritualitateak proposatzen du neurritasunez haztea eta gutxirekin gozatzea. Kontua da xalotasunera itzultzea, eta horrexek utziko digu une batean gelditzen gauza txikiak balioesteko eta bizitzak eskaintzen dituen aukerak eskertzeko, daukagunari atxiki gabe, eta ez daukagunagatik batere atsekabetu gabe. Saihestu beharra dago, hortaz, menderatzeko eta gero eta gehiago metatzeko dinamika.” (LS, 222).

Baina ez daukagu hausnarketan geratzerik. Gure bihurtzeak agertu beharra dauka ekintzan; erosketara arduratsu eta kritikoaren alde egitea da, jarduera hori ohiko gauza egitea eta ez anekdotikoa.

Hona hemen ekintza proposamen batzuk:

1. Saltokietan erostea edo kontsumoko taldeetan parte hartzea.
2. Bidezko merkataritzako produktuak erostea.
3. Neure inguruan ditudan ekonomia solidarioko enpresen berri jasotzea, eta behar ditudan produktu eta zerbitzuak erostea (banka etikoa, energia berriztagarriak, etab.)
4. Murriztu, birziklatu eta berrerabiltzea.
5. Lagundu eta parte hartzea ekonomia solidarioko ekimen alternatiboen mugimenduan eta kanpainetan, ekonomia eta kontsumoko eredu horren alde egiten duten aldaketa politiko eta ekonomikoei eragiteko xedez; izan erre, ardura guztion gauza da benetan.
6. Ekonomia solidarioko ekimenak hedatzea neure inguru hurbilean (familia, elkarte, adiskideak ...)

Kanpaina irudiak nahi du, hain zuzen ere, era sinbolikoan azaldu hausnarketa hori guztia eguneroko kontsumo egintza baten bitartez: horra hor kafe edo te bat hartzea. Hausnarketa jarrerak –gaztea pentsatzen ari da edaria hartzen duen bitartean– garamatza

bihurtzeko prozesu horretara, kontsumo arduratsu baterantz, eta horrek berekin daroatza praktika ekonomiko batzuk, nekazari gazteari eragiten diotenak. Atzean dago eragin zuzen bat beste pertsona askoren oinarritzko lan-, gizarte- eta ingurumen-eskubideetan.

Caritasek ekonomia solidarioko proiektu batzuk dauzka, eta bertan hartzen du parte:

Koopera

Lapiko Katering

Kidenda

Zaintza-lan

Fiare

Eta bestelako ekimenik ere badago: ortu solidarioak, besteak beste.

Horrez gain, Euskadiko Ekonomia Alternatibo Solidarioaren Sarean (EASS) hartzen du parte.